

- **Erreportaia:** Udalean aurrekontu proposamena bozkatu da
- **Zer berri:** Sorailuzeko langabezia datuak

sorailuzeko  
hamabostekaria **217.** alea  
2010eko martxoaren 12an

# PIL • PIL • zan



# Emoixok Lasku!!!

## 1- Etxebizitza

### Salgai:

- Soraluzen, Errabal kalean etxea salgai. Hiru logela, bainugela, jangela, eta sukaldea. Berrituta dago eta bizitzera sartzeko moduan. 80 metro karratu.
- Gabolatz kalean etxea salgai. Bi logela ditu, sukaldea, jangela eta bainu gela. Oso argitsua eta bizitzeko moduan dago. Prezio oso ederra. 70 metro karratu.
- Baltegieta kalean etxea salgai. Hiru logela ditu, jangela, sukaldea eta bainugela. Oso argitsua da eta bizitzera sartzeko moduan. Oso prezio interesgarria du. Deitu lasai eta galdetu.
- Zeleta auzoan etxea salgai. Bi logela, sukaldea eta bainugela ditu etxe honek. Gasdun berogailua de eta etxea berrituta dago. Bizitzera sartzeko prest dago. Eskaintza ona.
- Baltegieta 17.ean etxea salgai. Etxe honek hiru logela, sukaldea, bainugela eta despentsa ditu. Igogailu berria dauka eta oso argitsua da. Oso prezio onean dago. Deitu eta galdetu.
- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hiru logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.
- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hiru logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuak deitu 649 759078 mugikorrera (Ainhua).
- Lau eta sei urte bitarteko aurrentzat arropa salgai. Berokiak, galtzak, oinetakoak eta beste hainbeste. Prenda guztiak euro bat eta hiru euro artean. Interesatuak, 649 318385 telefonora deitu.
- Gipuzkoa Etorbidea 24-5B pisua salgai. Interesatuak 617 347 906 telefonora deitu.
- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidean. Deitu 605744466 telefonora (Mariaje).

## 2- Lana:

- Larunbat goizetan garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 666 815 008-679 878 676.
- Modistak era guztietako konponketak egiten ditu Gabolatz kalea, 29, 1 Telefonoa, 666 815 008 / 679 878 676.
- Modistak era guztietako arropak konpondu eta josten ditu, prezio onean. Errabal kalea 6-1 eskuma. Telefonoa: 634 841172 edo 943 751711
- Ile-apaintzaile laguntzailea behar da. Harremanetarako: 943752385 (Ezoz).

## 3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuak deitu 669 145 893 telefonora.

## 4- Denetarik:

### Salgai:

- Bizikleta saltzen dut. Duela bost hilabete "Puesta a punto" eginda duena. Prezio oso interesgarria. 943 75 14 91.

### Hartu:

- Ordenagailuko kañoia erosiko nuke. Interesatuak: 628233464
- 6.0, 6.1 luzerako surfeko ohola erosiko nuke. Olatuan maniobrak egiteko moduko ohola eta egoera onean dagoena. Telf: 655721190 eta emaila:tatxus@gmail.com. IKER.
- Hirian ibiltzeko moduko bizikleta merkea erosiko nuke. Ez du inporta zaharra izateak. 100 euro ordainduko nituzke gehienez. Telf:655721190 eta emaila:tatxus@gmail.com IKER.

Atal honetako iragarkiak doan dira.  
Iragarki guztiak, soraluze.iragarkilaburrak.com helbidean daude  
eta baita, www.plaentxia.com helbidean. Kontaktua bertan.

Iragarkiak jartzeko:

943 75 13 04 telefonora deitu edo [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)-en  
[soraluze.iragarkilaburrak.com](http://soraluze.iragarkilaburrak.com)



EGUZKIÑE ALDAZABAL



GORKA PRIETO

## JOLAS KOOPERATIBOAK

**G**orka, entzun dozu inoiz jolas kooperatibuen inguruan berba egitten?

Inguruan badittugu kooperatiba ezagunak eta danok ulertzen dogu gutxi gorabehera enpresa hauen funtzionamendua. Ba kooperazioz jolastia antzeko zeoze da: ez dago galtzailerik ez eta irabazlerik. Helburua jolasten ondo pasatzia da, denbora tarte horretan dibertitzia eta ez gehixago. Txikittatik erakutsi doskue eta guk azkar ikasi, jolasten dogunian irabazle bat egongo dala eta bardin, galtzaile bat edo batzuk. Geizki sentitzen gara galtzen dogunian eta oso ondo irabazten dogunian. Baina jolasetan zer da irabazten doguna? Eta galtzen doguna? Dana lagunen artian “onenak” garala erakusteko, sinisteko, izateko egitten dogu. Oin pixkanaka, gure umieri inportantiena parte hartzia dala erakusten dotsegu eta gu geu be hori sinisten ahalegintzen gara. Baina norberak hori sinisten badau be, atzetik daukan jende guzti horren ilusino eta nahixen erresponsible ez sentitzia oso zaila izaten da.

Momentu batez pentsatzen jarri zegaittik sentitzen garan hain ondo “onenak” izanda... eta ia zenbat irauten daben poz horrek... erronka bat litzake familia kooperatibak eta lagun kooperatibak sortzia. Danok galtzeko bildur hori izan ez deigun, jolasten, ikasten, lanian... pixka bat askiago sentitzeKOO...

“

***Txikittatik erakutsi doskue jolasten dogunian irabazle bat egongo dala***

Eguzkiñe Aldazabal

***Imajinatzen dozu azterketa gabeko ikasketa unibertsi-tariorik?***

Gorka Prieto

”

**K**aixo Eguz. Kontxo! Kontxo! Demaseko gai metafisikua ekarri dostazu oinguan... Ondo konzentratuta irakurri bihar izan dot... eta ez jatzu bape arrazoirik falta!

Danok izan gara ume (batzuk ondiok be ume gara...) eta “parte hartzia da garrantzitsuen” horren inguruan hezi zaittuen arren, ze umek ez dogu izan irabaztitan satisfakzio nahi hori? Horrek ez dau kentzen galtzen be ikasi bihar ez danik. Gogorra izan arren. Ezen eta lehenago edo beranduago bizitzak berak erakusten dosku galtzen eta nik ondo dakit zer dan hori, beti izan bainaiz pikoi xamarra...

Ikasketa KOOoperatiboei buruz askotan berba egin izan genduan ikasle izan nintzanian. Imajinatzen dozu azterketa bareko ikasketa unibertsitariorik? Gaur egun, daukagun hezkuntza sisteman astakerixa bat emongo leukena, lasai eta aurreritziarik bare pentsatuz gero ondoko printzipixuetan oinarritutako litzake: lehenik eta behin, ikasketa batzuk egi-terra doian kristaua bera nahi izan dabelako izan biharko litzake eta bere helburua ikasi eta prestaketa bat jasotzia danez, horrek izan biharko leuke inportantiena. Eta bigarrenik, ikasketen ebaluazino sistema sistema ireki bat izan biharko litzake, ikasle desberdinen arteko aportazino ebaluatibo amankomunak aztertuz, bakoitzak bereganatu ahal izan daben ikasgaietatik abiatuz... ala? Sartu dotsuten roiluak ez dakit askiago sentitzeKOO balio izan dotsun Eguzkiñe, baina seguru K.O. laga zaittuda... Ondo segi!

Goguan hartzeko

**“Alkartasunik ez dagan lekuan indarrik ez”**  
Gotzon Garate, euskal atsotitza.



## GUTUNAK

### Eskerrak emanez

**F**utbol zelai berria egiten hasi diren honetan, Ezoziko futbol zelaiaren egoera tamalgarria jasan behar izan duten futbolariei nire esker ona eskaini nahi diet. Gipuzkoako herri guztietan beldar artifizialeko futbol zelai artifizialak egiten hasi zirela ikusi eta gure Udalaren ezintasuna jasan duzuenoi, eskerrik asko denoi Sorako taldean jarraitzearen.

Ondorengo esker ona Soraluzeko herriarentzat da. Pasa den denboraldian kirolean eskaintako bultzadagatik eta futbol zelaiaren egoera tamalgarria salatzeagatik. Denon artean zelaiaren berriztatzea egitea lortu dugu eta!

Esker ona luzatu nahi diet baita gure Udaleko alderdi politikoei ere, bereziki, gobernu taldeari eta

alkateari, J.L. Arizaga "Txipi" jaunari. Herri honetako gehiengoaren nahiak kontuan hartzeagatik eta aurreko gobernu taldeek hainbat urtetan hartu ez duten erabakiak betetzeagatik.

Zer esanik ez, nire esker ona Pil-pilean aldirari eta Nerea Isastiri, klubaren eta futbolarien mezua aldira eta argi eta garbi zabaltzearen. Bestalde, ez ditut Udaleko Maria eta Nerea ahaztu nahi. Beraientzat ere nire esker beroenak, Udalean egindako lan arduratsuegatik.

Futbol zelai itxuroso bat izaten Gipuzkoako azkeneko herria izateagatik "domina" jaso ondoren, gure erakunde eta ordezkari politikoei hemendik aurrera, orain arte baino ausardia eta erresponsabilitate gehiago izatea opa diet!

**Alberto Berraondo,**  
Soraluze Futbol Taldeko Laguntzailea

### Salda badago

**M**endittik nekatuta datorrenandako, bisittan datorrenandako... beti daukagu etxeok su gainian salda berua lapikuan. Hala izan dogu ohitturia beti.

Juan zan astian osterari ardi artera otsuak azaldu jakuzen. Berde ilunez jantzizta, mutur luze bildurga-

rriz eta metrailletak eskuetan daukezela etorri jakuzen ixa atairaino. Gogoz kontra geldi euki ginttuen ordu erdiz bide baztarrian, etxe onduan.

Armak eskuan ardi bila datorren otsuandako ez dago saldarik gurian.

**Arianne Unamuno**

### Zuhaitz eguna

**E**gun hauetan hainbat udalerritan zuhaitz eguna dela medio, zuhaitz desberdinen landaketak burutzen dihardute. Zoritxarrez Soraluze ez da horrelako ekintzarik burutu legegaldi honetan. Ez zuhaitz egunean ezta legegaldiko 3 urte hauetan ere.

Ingurugiroko batzorde burua, Roke Akizu Jauna hauteskunde kanpaina Soraluze Baso Bidez egitasmoaren bultzatzaile bezala azaldu zitzaigun. Gure aldetik argitzea nahi dugu Soraluzeko EAJ/PNV udal taldea izan zela egitasmo honen

bultzatzailea eta aurrera eramane zuena. Aurreko legegaldian 1750 pago landatu ziren Urkia-Zelai inguruan. Gaur da eguna, hiru urte luze ondoren, ez dena zuhaitz bakar bat ere landatu Soraluzean. Benetan balantze penagarria ingurugiro batzorde buruarena. Guzti hau horrela izanda 2010eko aurrekontuei dagokionean gure taldeak 18.000 eurotako partida bat zehaztea eskatu dio udal gobernuari udalaren jabetzakoak diren lurretan zuhaitz landaketak egiteko. Espero dugu kontuan edukiko dutela eginiko proposamena.

**Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldirikoko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Pil-pilean**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldirikoko@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



## bittartetik



Ubane Madera

## Badago zeregina

**A**smakizun bat: badoaz aita-semeak autoan, eta istripua dute. Aita hil egiten da; semea, berriz, ospitalera eramaten dute, operatu beharrean. Ospitalean dagoela, zirujaua azaltzen da, mutikoa ikusten du, eta dio: "Ezin dut operatu, nire semea da!"... Asmatu beharrekoa zera da: hori zela da aita istripuan hil bada? Zein da zirujaua?

Erantzuna da zirujaua mutilaren ama dela.

Zoritzarrez, gutxik asmatzen dute. Oraindik, askotan inkontzienteki, estereotipoak eta hezkuntza matxista erabat barneratuta ditugu, nahiz eta sarri ezetz pentsatu.

Martxoaren 8ak datu kezagarriak utzi ditu: 2000tik 2009ra urtero 63 andra hil dituzte. Alargunen pentsioak lotsagarriak dira. Emakumeak gizonak baino 7.000 euro gutxiago kobratzen ditu. Edo eliza katolikoa, eta erlijio gehienak (guztiak ez esatearren) erabat matxistak izaten jarraitzen dute. Zain nago noiz ikusiko abade, gotzain edo "Aita" Santu emakumea. Abortoaren kontra ozen dabilta, baina berdintasunaren alde edo tratu txarren kontra... Badugu zeregina oraindik.

## Itziar Sagastagoia, Udaleko idazkari berria

## Aurkeztu zure burua herritarra-ri...

Itziar Sagastagoia naiz eta 33 urte dittut. Jaiotzez bilbotarra banaiz be oin Atxondoko Axpe auzoan bizi naiz. Zuzenbide ekonomikuan lizentziatua naiz eta Soralueko Udalian bi hilabetez dihardut lanian.

## Zein da zehazki, idazkarixan betebiharra?

Egixa esan udaleko barne kontuak eruatia da nere ardura nagusixa. Lege-aholkularitza egittia esaterako. Kontu hartzaile lanak be egitten dittut, (aurrekontua, kontabilitatea, diruzaintza) eta jendian aurrian fede publikua emotia be nere arduretako bat da. Udalian egitten diran bilkura eta batzordien aktak jaso

bihar dittut baita eta bilkuran hartutako erabakixen exekuzinua be egitten dot. Txosten ekonomikuak egittia be nere lanetako bat da.

## Zelako girua topatu dozu Soralueko Udalian?


Egixaesanosogiroonadago! Lan harremanak onak dira eta nere lana egitteko orduan laguntza haundixa jaso dot nere lankidien partetik. Hasieria beti zaila izaten da, egoerara moldatu eta martxan ipintzia ez da erreza izaten. Alde horretatik pozik nago nere lanpostuakin.

## Lehenago be idazkari lanetan ibilittakua zara?

Bai, Arabako Zigoitiko Udalian egon naiz idazkari lanetan.

## Zer da idazkari izatian zailena? Eta polittena?

Udaleko kontu asko idazkari baten ardurapian dare eta gai askon arduria izatia eta honek modu egokixan kudeatzia da nere erantzukizun nagusixenetako bat. Hau izan leike nere lanan alde negatibo edo zailena. Ardura guzti honenek ondo kudeatzia ez da erreza eta! Polittena? Lan egin eta gero emaitza ona dala ikustia! Espedientien tramitazinua, legia eta udal gobernuan asmuak uztartzen saiatzia, bes-telako ekarpenak egittia... proiektu honek errealtate bihurtzen dirala ikustia da nere lanpostuan alderik atsegina.



*"Ardura danak ondo kudeatzia ez da erreza! Polittena? Lan egin eta gero emaitza ona dala ikustia!"*

## Durangoko Kafe Antzokiko administraria izan zara. Soraluez posible ikusten dozu Kafe Antzoki bat sortzia?

Kafe Antzoki bat proiektu ederra dala esan neike, benetan polita! Kultura sustatzeko gune euskaldun bat sortzia ez da ahuntzan gaberdikoeztula! Baina polittabeste zaila da Kafe Antzoki bat aurrera etartzia. Ardura haundixa. Azterketa sakonak egittia suposatzen dau; bideragarritasun ekonomikua begiratzia, finantzazinua lortzia, merkatua aztertzia, eta zailena, herrittarrak entzutia! Bestela erabiltzailien perfilak aztertu, proiektuan parte dirala sentiarazi, egoitzan kokapena, kudeaketia... Honek danak ondo aztertu bihar!

GAZTELUPE  
taberna  
tel: 943 75 20 81

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

## Jantokietako langileak greban

Plentxi Herri Ikastetxeko jangelako langileak greba mugagabea egiten dihardute martxoaren 9tik asteen bi egunez. Greba



ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitu dute EAEko kudeaketa zuzeneko eskola jangeletan bertako langileen baldintzak hobetzeko helburuarekin. Urtebete baino gehiago daramate gatazka hasi zenetik eta lan itunik gabe ia bi urte daramatzate. Konponbidea lortu arte grebari eutsiko diotela adierazi dute.

### Langileen aldarrikapen nagusiak

Ikastetxeko jangelako langileek aldarrikapen nagusiak zerbitzua hobetze aldera egin dituzte eta eskatu dute "enpresen eta Eusko Jaurlaritzaren bizkar ipintzeko jantokiak ez zabaltzearen ardura osoa". Guztira lau aldarrikapen nagusi egin dituzte. Alde batetik, txostenak lantzeko eta tutoreekin hitz egiteko lan aldia handitzea eskatu dute. Bestetik, berriazko etengabeko prestakuntza izatea lehen laguntzaz, dietaz, alergiak, etab. Ratioak jaitziz atentzioa hobetzea eskatu dute eta saileko sukaldeko langileekin soldatak parekatzea ere bai.

### Moises Altuna juntako lehendakari berria

Martxoaren 4an egin zuten Itxaropena Jubilatuko Elkartearen batzar orokorra. Batzarrean Moises Altuna Elkartearen lehendakari berria izateko aukeratu zuten eta juntako kide berriak Arturo Zarobe, Mertxe Barrutia, Tere Larrañaga, Karmina de Castro, Lourdes Altuna, Jose Cortes eta Julia Makinai izango dira.

### Aurreikuspen ekonomikoa

Iaz udaletik 10.270 euroko dirulaguntza jaso zuen Itxaropena Elkarteak eta aurten ere kopuru bera jasotzea aurreikusi dute. Dirua bidaiak egiteko, karta txapelketak, bazkariak, bilerak eta elkartearen kostuak babesteko erabiliko dute. Momentuz ez dute txangoetarako datarik finkatu.



### Zine kluba osatzeko deialdia

Kulturaren Mahaiaren azken bileran herriko helduentzat egokia den zine kluba sortzea erabaki zen. Arduradunek zinema gustuko duten herritarrei dei bat egin nahi diete zine klubean parte hartzeko. Lan taldearen zereginak udazkenetik aurrera herriko zine aretoan ikusle helduei begira antolatu beharreko proiektuak nolakoak izan behar diren erabakitzea eta proiektu horiez arduratzea izango da. Izena emateko udaletxera jo.

### Gainditu dezagun menperatzen gaituena

Martxoaren 8a egun berezia da emakumeentzat. Egun honetan parekidetasunerako eskubideak aldarrikatzen dira bereziki eta besteak beste, "gainditu dezagun menperatzen gaituena" lemapean elkarretaratzea egin zen herrian. 60 lagun inguru bildu ziren bertan.





**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91  
Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99  
**SORALUZE**

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)





# Hilabeteren buruan 23 langabetu gehiago daude herrian

## Abizenak euskalduntzen

Soraluzeko Udalak eta Pil-pilean Euskara Elkartek abizen erdaldunak euskaratze-ko kanpaina jarri dute martxan. Tramiteak bake epaitegian egin behar dira eta ondorengo agiriak aurkeztu behar dira: nortasun agiria eta honen kopia bat, jaiotza agiri literala eta errolda agiria. Informazio gehiago bake epaitegian (943751989) edo Udaleko Euskara Zerbitzuan (943753043).

## “Goazen independentziara” lemapean jardunaldiak

Herriko gazte independentistek antolatuta martxoaren 7tik 14ra bitartean jardunaldiak egingo dira herrian. Hauen esanetan pertsona askez osaturiko herri aske bat lortzea da jardunaldien helburua eta horretarako, bestelako eredu eta balore batzuk jorratu behar direla diote.

### Egitaraua:

**Gaur, hilak 12:** Triki bertso poteoa eta bertso afaria jarraian Gaztetxean.

**Martxoak 19:** 18:00etan Independentziaren aldeko pala eta futbolin txapelketa frontoian.

**Martxoak 21:** Independentziaren eta sozialismoaren inguruko mahai ingurua 18:00etan Gaztetxean.

**Martxoak 24:** Txiapas herrialdearen egoerari buruzko hitzaldia 19:00etan Gaztetxean.

## Hezkuntza deialdia Bilbon

Martxoaren 13an hezkuntza sistemaren inposaketa, adoktrinamendua eta uniformizazioa salatzeke Euskal Herriak Bere Eskolak manifestazio nazionala antolatu du Bilbon arratsaldeko 17:30ean Arriaga plazatik abiatuta. Haur eskola euskaldun eta hezitzailea eta euskalduntzea bermatuko duen hizkuntza eredu aldarrikatuko da bertan. Soraluzetik manifestaziora joateko autobusa antolatu da eta irteera arratsaldeko 16:15ean izango da Gilako zubitik. Izena emateko: Iratxo, Gaztelupe eta Arrano tabernetan.

Eibarko INEM-eko zuzendariak emandako datuen arabera, 2010. urteko urtarrilean Soraluzeko 333 herritarrek eman zuten izena Eibarko egoitzan. Guzti haueetatik baina, 261 daude langabezian erregistratuta. Erregistratuta daudenen artean 142 gizonezkoak dira eta 119 emakumezkoak. Langabezian dauden gizonezkoen artean, 30 eta 34 urte bitarteko herritarrek dira gehien. Erregistratuta dauden emakume langabetuen artean berriz, 55 eta 59 urte bitarteko adina dutenak dira gehien. Otsailean zifra hauek gora egin dute. Lan eskatzaileak 357 dira eta erregistratuta dauden langabetuak 284. Langabetuen artean 153 gizonezko daude eta 131 emakumezko. Langabeziak gehien eragin dien adin tarteak urtarrilean moduan mantentzen dira, 30 eta 34 urte bitartean gizonezkoetan eta 55 eta 59 urte bitartean emakumezkoetan.



## 12 herritar gehiago laguntza eske

Ana Oregi Gizarte Zerbitzueta-ko laguntzaileak azaldu digunez 2009ko urte bukaeran 66 soraluzetarrek jaso zuten diru sarrerak bermatzeko laguntza. 2010. urte hasieran 6 herritar gehiagok egin

## Informazio gehiago:

Eibarko INEM bulegoa: 943 127288

Soraluzeko Gizarte Zerbitzuak: 943 750056



dute laguntza hau jasotzeko eskaera eta guztira 72 herritar dira. Bestalde 2009an 99 herritarrek jaso zuten gizarte larrialdietarako laguntza. Martxo hasieran 105 herritar dira guztira. Diru laguntza hauek jasotzeko Euskal Autonomi Erkidegoan erroldatuta egotea beharrezkoa da.

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

**PASCUAL CHURRUCÁ, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

# Bi urte eta gero, onartu dira aurrekontuak

Eguazteneko Udalbatzarrean onartu egin zen 2010eko aurrekontu proposamena. Bi urtez 2007ko aurrekontuak moldatzen ibili eta gero, sasoian sasoikoaz egin ahalko dituzte diru aurreikuspenak. Abstentzio bat nahikoa zen aurrera ateratzeko eta harridura EAJ alderdiaren abstentzioak sortu zuen. Zinegotziak zein bertaratu zirenak, denak aho zabalik geratu ziren aurrekontuak azkenean onartuko zirela ikusita. Aldeko bost botu (Udal Gobernu Taldea), hiru abstentzio (EAJ) eta hiru botu kontra (PSEE-EE, PP); onartu egin dira 2010eko aurrekontuak.

## Udal Gobernu Taldearen proposamen nagusiak

- Futbol zelaia eraberritzea
- Kiroldegiaren kudeaketa berria eta instalazioen hobekuntza
- Zineko egokitzapenak
- Emakume saileko teknikaria kontratatzea
- Maisuen Etxebizitzak alokairu sozialera bideratzea
- Igogailu publikoak egitea
- Etxaburueta eta Plaza Zaharra eraberritzea
- Gaztetxokoarendako lokala egokitzea
- Zuntz optikoa herrira ekartzea

## Oposizioari onartutako proposamenak

- Zine aretoaren bigarren fasea egiteko: 30.179 €
- Komun publikoak berritzeko: 7430 € partida hedagarria
- Etxaburueta kalean lurrazpiko edukiontziak ipintzeko: 7430 €

- Plaentxi Herri Ikastetxean arrapala ipintzeko: 5450 € partida hedagarria
- Karakate-Irukurutzetan zuhaitzak landatzeko: 4458 € partida hedagarria
- Jolas parkeen mantenurako: 2972 € partida hedagarria
- Zeleta San Andres errepidean argiztapena.

## Oposizioari onartu gabeko proposamenak

- Erregetzeko lurrak saldu eta parking publikoa egiteko proposamena. Udal Gobernu Taldearen iritziz ez da bideragarria herrian hainbat garaje saltzeke egonda.
- Fondo Solidarioko 6.000 € Haitira bidaltzea.
- Zirkulazio aldaketa leheneratzea: proposamena lekuz kanpo dagoela eta ez dela aurrekontuetan ateratzeko gaia erantzun zuen.
- Plaentxi Herri Ikastetxean estaldura eta arrapala ipintzea: ikastetxeak berak arrapalari eman ziolako lehenasuna hori gauzatuko dutela esan zuen.
- Itxaropena Jubilatutako etxean igogailua ipintzea Erregetxetik bertaraino.





## ALDERDIEN IRITZIAK

“Erantzukizunez jokatzu abstenitu egin gara”

EAJ

EAJko bozeramaile Iker Aldazabalek esan zuen kontziente direla krisi ekonomikoak aurrekontuaren egikaritzan izan duen eraginaz eta erantzukizunez jokatzu abstenitu egin dela. Ostean, Udal Gobernu Taldearen alde aurretiko jarrera ona nabarmendu nahi izan zuen eta EAJren aldetik ere “borondate ona” agertu dutela gehitu zuen. 2010 bukaeran balantze bat egingo dute euren proposamenak onartu diren ala ez ikusteko.

## EAJ:

## PP:

Maria Garmendia PPko zinegotziak ez zuen adierazpenik egin Udalbatzarrak iraun zuen artean.

## Udal Gobernu Taldea:

Udal Gobernu Taldeak EAJ alderdiari lehenengo eta gero PSEE-EEko zinegotzien proposamenei erantzun zien. Roke Akizuk eskerrik eman nahi izan zizkion EAJ alderdiari emandako jarrera aldaketagatik. Lurrazpiko edukiontzien eta Erregetxeko eztabaiden gainean hobera joateko aukera bat izango dela eta aurrekontuak onartuta “dena askoz hobeto” joango dela esan zuen.

“Kanpo finantzaketak baldintzatuko gaitu”

Udal Gobernu Taldea

“Pozik gaude behintzat aurrekontuak onartu direlako”

PSEE-EE

Soledad del Bosque PSEE-EE taldeko zinegotziak Udal Gobernu Taldeak euren proposamenak ez dituela aintzat hartu gogortu zuen, besteak beste, Jubilatu Etxera igogailu zuzen bat ipintzeko proposamena. Hala ere pozik agertu zen aurten behintzat aurrekontuak aurrera joango direlako.

## PSE-EE:

Jose Luis Arizaga Sorluzeko alkateak eta Iker Aldazabalek, eskerrak eman nahi izan zizkieten udaleko langileei aurrekontuak prestatzen egindako lanagatik. EAJ abstenitu izana ere eskertu zuen alkateak, “garrantzitsua delako Sorluzen ere aurrera egitea”. Hala ere, gogoratu nahi izan zuen aurten inbertsio bakarrak kanpoko diruekin egindakoak izango direnez, partida hedagarriak ere dirulaguntzen araberakoak izango direla eta kanpo finantzaketak baldintzatuko duela dena.

## Iazko aldean, ia %30 gutxiago egongo da aurten

2009an		2010ean
6.190.491 euro	– 1.782.262 euro	= 4.408.229 euro

(% 28,79)



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Usurbilen atez ateko zabor bilketia ipini dabe. Bertako alkatiak zaborren %80 erreziklatzeko gai izango dirala diño eta sistema honekin zabortegirik eta errauste plantarik ez egittia lortuko leukiela.

## Ipiniko zenduke atez ateko zabor bilketia Soraluzen?

**RAMON GOMEZ**  
Jubilatua



**I**nundik be ez neuke ipiniko. Gero zaborrak sekulako antza botako leuke ataixan eta etxe danetan eta hori osasunandako txarra da. Nik oin arte moduan erreziklatuko neuke, zaborra kontainerretara botata.

**MARISA SANTOTE**  
Ile-apaintzailia



**G**uk etxian dana erreziklatzen dogu baina egixa da ez dozula horren emaitza bueltan ikusten, kalian kontainer eta trasto gehixago baino. Hamen be saiatu geinke Usurbilgo moduko sistemian ipintzen.

**IÑAKI BENGOA**  
Langabetua



**B**ai noski. Soraluzen be posible litzake hola-ko erreziklatze sistema bat ipintzia. Modu honetara hobeto erreziklatuko genduke materixa organikua. Nere ustez atez ateko bidia da onena.

**MATILDE FUENTES**  
Garbitzailia



**N**eri primeran pentsatzen jata! Erreziklatu berdin-berdin egin bihar dogunez, ba etorri daittezelazaborran bila, ez? Gainera, ez genduke plastikozko poltsarik erabili bihar zaborra botatzeko.



*Disainua eta Sormena*

Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752



**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2    T. 943 75 16 13

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK



ERRABAL KALEA 15    T. 943 75 18 34

Merkatu Plaza  
0590 Soraluze



Juan Mari arraindegia

eguneroko arraina eta konjelatuak

T. 943 75 24 40



**Musika Eskolako en martxo-rako kontzertuak**

Gaur, hilak 12, herriko Musika Eskolako ikasleak Debara joango dira bertako Musika Eskolako ikasleekin batera kontzertua eskaintzera. Kontzertua elizan izango da iluntzeko 20:00etan. Debako ikasleak ostera, apirilaren 30ean etorriko dira Soroluzera eta zinean kontzertua eskainiko dute arratsaldeko 19:00etan.

**Udaberriko kontzertua**

Martxoaren 24an udaberriko kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasle denek (trikitixak, abesbatzak, musika tailerreko ikasleak, bandak, talde instrumentalak eta folk taldeak). Kontzertua arratsaldeko 19:00etan izango da, zinean. Bestalde, martxoaren 26an arratsaldeko 19:00etan konboien kontzertua egongo da eta Musika Eskolako rock taldeak hartuko dute parte.

**Herriko abesbatza Munichera**

Ezoziko Ama abesbatza Municheko "Music and Friends" enpresak antolatutako Cantate Bavaria topagune internazionalera irteera egingo du hilaren 18an. Danera, 29 herritar joango dira, abesbatzako kideak barne. Bertan hiru kontzertu eskainiko dituzte eta hauetako batean euskal jantzi tradizionalak jantziko dituzte. Hilaren 20an berriz, topagunean parte hartuko duten abesbatza guztiek batera abestuko dute eta hilaren 21ean Soroluzera itzuliko dira.

**Xaboa egiten ikasteko ikastaroa**

Herriko baserritar gazteek antolatuta xaboa egiten ikasteko ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da hilaren 27an goizeko 10:00etatik aurrera San Andres auzoko egoitzan. Maialen Elizburu eta Edurne Unamuno izango dira irakasleak.

# Soroluzeko errealzaleek 7. urteurrena ospatu dute

Haurrentzat eta helduentzat ekitaldi ugari antolatu zuten. Herritarrek izan zuten zertaz gozatu.



Argazkiak: Carlos de Cos



**40 lagun inguru Sagardotegira**

Pasa den asteburuan Pil-pilean Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen sagardotegira irteera egin zuten herriko 40 lagun inguruk. Ondo jan eta hainbat aldiz txotx egin ostean Hernanira joan ziren parranda egitera. Iluntzeko 22:00ak aldera bueltatu ziren herrira.

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29  
Soroluze  
T. 943 75 12 49

**MARE**  
ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Erribal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 69  
20590 SOROLUZE



# Laskurain eta Gonzalez faboritoen gainera

Otsailaren 28an Eibarko Astelena pilotalekuan finalerdietako sailkatzea erabaki zen. Olaizola eta Mendizabal Gonzalez eta Laskurainen kontra lehiatu ziren eta azkenean lehia gogorra izan ostean 21-22 Aspekoko bikoteak merezitako garaipena lortu zuen.

Modu honetara, Eskuz Binakako txapelketako finalerdietatik kanpo geratu ziren Asegareko pelotariak. Finalerdietara sailkatu diren bikoteak aldiz, Xala-Zubieta, Irujo-Beroiz, Titin-Pascual eta Gonzalez eta Laskurain dira.

## Finalerdietako lehenengo partida

Hilaren 6an, zapatuan, Iruñeko Labrit pilotalekuan eskuz binakako txapelketa-

ko finalerdietako lehen partidua jokatu zen. Pronostiko guztien kontra Gonzalez eta Laskurain 13-22 gailendu zitzaizkien Irujo eta Beroizi. Aritz Laskurain ondo aritu zen partidu guztian zehar, ondo jarrita, pilota zein jokoa atzetik zuzentzen. Zenbait komunikabidek biharamunean esan bezala, bera izan zen lauretatik onena Iruñan. Gonzalezek ere asmatu zuen Irujo mendean hartzen eta azkenean, bederatzitanoko aldeaz urdinak garaile. Beste bikoteetan Xala eta Zubietak lortu zuten garaipena, 13-22 Titin III eta Beroizen aurka.

## Hurrengo lehia domekan Eibarren

Plaentxiatarraren eta azkaindarraren hurrengo lehia domeka honetan izango da, martxoak 14, arratsaldeko 17:00etan Eibarko Astelena pilotalekuan Xala eta Zubietak bikotearen aurka. Finalerdietako bigarren garaipena lortzeko herritarren animoa eta babesak ondo baino hobeto etorriko zaizkio eta seguru plaentxiarrak eta baita Laskurainen lagun artekoak ere bertan izango direla, giroa berotzen.



Argazkia: Felix Morquecho

## Soraluze Saria uztailaren 18an

Otsailaren 28an jokatu behar zen Soraluze Sariaren XIII edizioa. Xinthia ziklogenesiaren mehatxuak asteburuko horretako kirol jarduera gehienak bertan behera laga zituen eta berdinetatu zen txirrindulari lasterketa-

rekin. Soraluzeko Kirol Elkarteak baina data berri bat finkatu du eta 23 urtetik beherako txirrindulari gazteentzat antolatzen den froga uztailaren 18an jokatu da. Ordutegia finkatu gabe dago.

## EMAITZAK

### PELOTA

Olaizola II – Mendizabal II 21  
Gonzalez – Laskurain 22

Mtz. De Irujo – Beroiz 13  
Gonzalez – Laskurain 22

### FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Eibartarrak Bertan behera  
Anaitasuna "B" – Sora (Erreg.) 3 - 2  
Arizmendi – Sora (Kad.) 3 - 2  
Sora (Kad.) – Aretxabaleta "B" 1 - 3  
Eibartarrak "B" – Sora (Jub.) 3 - 3  
Sora (Jub.) – Arizmendi Bertan behera

## AGENDA

### PELOTA

**Domeka 14, 17:00etan Eibarko Astelena pilotalekuan**  
Gonzalez – Laskurain  
Xala - Zubietak

### FUTBOLA

**Zapatua 13, 12:15ean Estalan**  
Sora (Kad.) – Bergara K.E.

**Zapatua 13, 16:30ean Estalan**  
Sora (Erreg.) – Elgoibar C.D.

**Barixakua 19, 16:30ean Estalan**  
Sora (Jub.) – Arizmendi K.E.

Bertan behera geratutako partidua  
**Apirilak 11 Estalan**  
Sora (Erreg.) – Eibartarrak

### MENDIA

**Martxoak 14, zapatua**  
Aloña Mendi K.E. antolatuta  
8 eta 6 kilometroko mendi itzulia Arantzazutik hasita. Irteera 8:30ean Estazioetik.

### Oharra:

Mendi irteerak apirilean hasiko dira. Kirol elkartean izena emateko martxoaren 22tik 26ra bitartean egin behar da, arratsaldean, Pil-pilean Euskera Elkartearen egoitzan.

**SEGURTASUNA**

**GILTZAK, S.L.**  
SARRILAGINTZA

**K21**

- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutzen **salmenta** eta **mantenua**
- Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
- Sarrailen **egokipenak**
- Era guztietako giltzen **kopiak**
- Trabatutako atekak **askatzen** ditugu

**8.00etatik 24.00ak**  
**larrialdiko zerbitzuak**  
**943 70 13 91**

Arraqueta 3  
20600 EIBAR  
GIPUZKOA  
T. 943 70 13 91  
F. 943 20 86 99  
giltzak@giltzak.com  
www.giltzak.com

**Javier Alberdi**

**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze



## ZORION AGURRAK



**Aiara Cortes Calles**  
Martxoaren 21ean!  
Zorionak pottoka!  
Patxo handi-handi bat  
etxekoan partez!



**Jon Urdangarin**  
Martxoaren 9an 9 urte!  
Zorionak eta muxu handi  
bat etxekoan partez!



**Oihane Vila**  
Martxoaren 9an 20 urte!  
Egun ona izan dezazula eta  
muxu handi bat etxekoan  
partez!



**Iñaki eta Markel Soraluze**  
Martxoaren 24an eta 14an urteak betetzen  
dituzuelako, zorionak bikote eta muxu  
handi bana etxekoan partez.




**Ibai Rodriguez Larrañaga**  
Martxoaren 11n 6 urte!  
Zorionak politta! Ondo pasatu  
zure egunean eta muxu pila  
bat etxekoan partez!



**Amaia Gonzalez**  
Otsailaren 24an 2 urte!  
**Ainhoa Gonzalez**  
Martxoaren 5ean 6 urte!  
Zorionak eta patxo handi  
bat etxekoan partez!



**Peio Etxeberria**  
Martxoaren 20an  
urteak betetzen dituzulako...  
Eutsi gogor eta aurrera  
bolia!!! Muxu handi bat  
Soraluzetik!



**Zorionak Inaxion!**  
3-0 "Hat trick" eta etxera!  
Ospatuko dogu txotx eta txotx  
Nelsonekin! jeje



**Oihan Larrañaga Agirre**  
Martxoaren 4an 4 urte!  
Zorionak txapeldun!  
Ondo pasatu potxolo eta  
patxo handi bat etxekoan  
partez!



**Amuitz Perez Lizarralde**  
Martxoaren 17an 2 urte!  
Zorionak eta muxu handi bat  
Etxeko guztion partez!



**Ane Ugalde**  
Martxoaren 21ean 27 urte!  
Zorionak eta muxu handi  
bat lagunaren partez!

## jaiotakoak

OIER FULGENCIO UCIN  
NORA LARREATEGI SANCHEZ



## LEHTAKETA

- ▶ Zein ageri  
da argazki  
honetan?



- ▶ Saria:  
PIL-MATERIALA

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ **Irabazlea: Soraia Olasagasti**
- ▶ **Jose Vicente Santamaria,**  
Plaentxi Herri Ikastetxeko atezaina da  
pasa dan aleko argazkixan agertzen zan  
soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)



# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Maite Oregi eta Emilita

## LUIS REMIGIO BOLUMBURU 70 URTEZ SHANGHAIN

**L**uis Remigio Bolumburu 1910. urtian jaixozan Soraluzen. Oso gaztia zala Jesuita egin zan eta Txinara jua zan misino lanak egittera. 1940. urteko maiatzan 30ian bere lelengo mezia emon zeban Shanghain eta bertan hiru soraluzetarrek hartu zeben parte: bere anai Emilio Bolumburu eta bertan zeren Ziriako Etxaniz eta Julian Arana “El tigre” pelotarixak be bai. Argazki hau, oin dala 30 urte ingurukua da, Luis Regimio Sora-

luzen egon zan azkeneko aldixan etaratakua. Tamalez, 2010eko otsailian hil da, 99 urte zittuala. Urte guzti honetan Pil-pilean aldizkariko harpidedun izan da eta aste bittik behin jaso izan dau Shanghain herriko aldizkarixa, bere sorterriko gertaerak gertutik jarraituaz.

### Argazkian:

Teresa eta Regimio Bolumburu Galarraga







# Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua  
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.  
Osintxu Auzoa  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 76 90 76  
Fax. +34 943 76 51 28  
E-mail: [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)



## “SORALUZE 1936” LAN TALDEA

AURKEZPENA



### EGITARRAUA:

- “Euskal Herriko Egiaren Batzordea” liburuaren aurkezpena.  
(Lau Haizetara Gogoan elkartera)
- “Soraluze 1936” lan taldearen egitasmoaren aurkezpena.  
... eta aurkezpenaren ostean, luntxa.

EGUNA: Martxoak 18, eguna  
ORDUA: 19:30ean  
LEKUA: Zinea



# Abizena euskaldundu nahi?

Oso erraza da.

1

Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.

2

Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

3

Agiri hauek eraman:

- Nortasun-agiriaren fotokopia. Originala ere eraman behar da.
- Hitez hitzeko jaiotza-agiria. Epaitegian eskatzen da.
- Errola-agiria. Udaletxean eskatzen da.
- Familia-liburuaren fotokopia. Seme-alabentzat aldaketa eskatzen bada.
- Seme-alaben nortasun-agiriaren eta errola agiriaren fotokopia. 14 urtetik gorako seme alabentzat aldaketa eskatzen bada.



Sorabuzeko Udalerko  
Euzkera Batzordea



PIL-PILEAN



*Izan direlako  
gara...*



Iragana **gogoratu** dezaten bizi izan zutenek  
Iragana **ezagutu** dezaten bizi izan ez zutenek

Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera,  
Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!

Baldin badakizu,  
ez ahaztu...  
protagonisten izenak,  
urtea, lekua eta  
konturen batzuk!!

Astebetean itzuliko dizkizugu!



PIL-PILEAN

